

Getxoko etxe izenen sorreraz

MIKEL GORROTXATEGI NIETO

LAN HONEN ZERGATIA

Ikerketa hau aurrera ateratzeko burutazioa *Upsalan* 2001ean burutu zen ICOS-en aurkeztu nuen lana gauzatzean sortu zen. Aipatutako jardunaldietan deituren eta etxe izenen arteko harremanak aztertu nituen¹ eta bibliografia aztertzean berehala konturatu nintzen etxe izenak aztertu direnean deitura diren neurrian aztertu direla eta soil soilik etimologia aztertuz. Hori dela eta ez zegoen, XIX. mendean S. Aranak deituretarako egindako sailkapenez gain baserri izenen sailkapenik, ezta azterketa diakronikorik ere. Aipagarria da, hala ere, jardunaldi horietan bertan A. Iñigok Nafarroako oikonimoetan ageri diren lanbide² eta izenei buruzko lanak.

Euskal etxez egindako lanak bi aldetara makurtu dira, hizkuntzalaritzaren ikuspegitik egindako lanetan, Euskal Herrian, beste hainbat lekutan bezala, hain gustukoa den etimologia jorratu da. Antropologia eta etnografiaren aldetik egindako ikerketetan agerikoa den lotaraz landa ez da areago joan. Azkenik, arkitektura aztertzean herri egitura ere aztertu bada ere ez da arlo hau ukitu. Beraz, esanahia eta lekuaren arteko lotura gutxi jorratu da eta egin bada ez era sistematikoan.

Etimologiak aztertzean ez da sorreren azterketa diakronikorik egin, helburua esanahiak argitzea baitzen. Gainera, horrelako lanetan ez da lekua eta izenaren arteko harremana landu eta gehienetan izenak osagaika aztertu izan dira landa lana egin gabe. Hori dela, eta izendegietan izenak alfabetikoki agertzen zaizkigu atzean azalpena daramatela. Lan asko egin dira eta hauen irizpide eta ondorioak aztertzea lan mardula denez ezin ditugu hemen guztiak aipatu. Dena dela, hiru nabarmendu behar ditugu: Mendizabal, Mitxelena eta Grace de Jesus.

¹ Lanaren izena: *Oikonymic or farm-based surnames in the Basque Country*.

² XX jardunaldietan aurkeztua.

Lehenengo lanaren helburuetako bat euskal deitura guztien jatorria landarezarekin lotzea izan zen askotan, gehiegitan esan genezake, azalpen onartezinak egin zituen. Bigarrena. L. Mitxelenak egin zuen *Apellidos Vascos* alor honetako onena da inolako zalantzarik gabe. Irakurle arruntak ez ditu erantzun guztiak aurkituko, erantzun guztiak ez baitaude gure esku. Azken lanean ostera ez zuten erantzun guztiak emateko arazorik izan eta horrelakoak irakur daitezke: Erice: "...de la voz Heros procedente del griego *Ἡρώε* 'héroe'. Es probable que los primitivos habitantes de este lugar fueran mártires de la religión cristiana y por eso héroes".

Aurrekoekin batera aipagarriak dira Jaime Kerexetak eginiko *Diccionario Etimológico y Heráldico Vasco*, zeintan etimologiez gain jatorria ere ematen den eta A. Irigoienek argitara emandako artikuluko solteak eta Bizkaiko sutegien argitalpena, azken lan hau zerrenda hutsa bada ere.

Deiturak sailkatzeko egin zen lehenengo saio sistematikoa Sabin Arana Goiri ezagunari zor diogu³. Zoritzarrez sailkapena ulergaitza izateaz gain ageriko hutsak ditu, eta *-rena* amaiera dituzten deiturak patronimikotzat jotzen ditu, nahiz eta jakina denez oikonimoak izan. Gure lan honetarako, aztergaia etxe izenak direnez jatorriz patronimikoak edo izen hutsak diren deiturak alde batera utziko ditugu.

Argi dago euskal deituren inguruan egin den lanik garrantzitsuena Mitxelenak idatzitako *Apellidos Vascos* izan dela. Tamalez, etimologia oso ongi landuta egon arren ez zuen sailkapen proposamen zehatzegik egin eta bitan banatzen ditu euskal deiturak:

- a) Gizabanakoen deizioetatik datozkigunak.
- b) Jatorriz leku bat izendatzen zutenak.

Bigarren puntu honetan J. C. Barojak *Los Vascos* lanean egindako bizi lekuen banaketa aipatzen du:

- 1) Antzinako jabearekin lotutakoak.
- 2) Santu izenak.
- 3) Leku izen adierazgarriak, egungo euskararen bidez erraz uler daitezkeenak

GETXO AUKERATZEKO ARRAZOIAK

Getxoko udala aukeratzeko arrazoiak oso errazak dira. Argitaratu gabeko dokumentazio kopurua batetik eta herriaren bilakaera historikoa bestetik.

Bertako udalak herriko toponimia ikertzeko beka deialdia egin zuen eta bekadunetako batek lana uztean, beste bekadunak eta udal ordezkariak eskatuta neuk ekin nion lan hori amaitzeari. Lana amaitutakoan udalak emaitzen lagin bat liburu batean argitara eman arren ez zen bildutako material osoa erabili, udal asmoa ez baitzen ikerketa guztia islatuko zuen liburua argitaratzea, herritarrentzat eroso eta atsegina eta haien ustez eraginkorra izango ze-

³ *Tratado Etimológico de Apellidos Euzkéricos*, Ed Pizkunda, Bilbo, 1930.

na kaleratzea baizik. Horren ondorioz, bildutako material baliagarri asko argia ikusi gabe geratu zen.

Material kopuru handia izateaz gain Getxok badu Euskal Herriko herri askok izan ez duten ezaugarri interesgarria: bilakaera demografikoa. Herri txikia izatetik Bizkaiko bigarren herria izatera pasatu da ehun urteetan eta euskaldun kopurua zeharo murriztu arren ez da hizkuntza hil. Horren ondorioz, XX. mendean eraikitako etxe batzuek euskal izena eskuratu zuten.

Azken puntu hau bereziki deigarria da, mendez mendeko hazkundera honen izendatze sistema diakronikoki aztertzeo aukera eman digu ez baita inoiz eten. Beste herri askotan baserri kopurua ez da azken bi mendeotan gehiegi aldatu lurra zeharo banatuta baitago.

LAN PROZEDURA

Baserri eta etxe izenak mendeka antolatu dira eta gero esanguraren arabera sailkatu. Etimologia oso esparru labaingarria denez saiatu naiz oso eztabaidagarriak izan daitezkeen etimoak alde batera utzi eta zalantza azaldu den kasuetan etimologiarik ontzat ez eman. Testuaren argitasunaren mesedean ageriko etimologiak ez ditut azaldu eta bakar bakarrik garatu ditut eztabaidagarriak edo ilunak izan daitezkeenak. Zail izan da kasu batzuetan benetako toponimoak eta deiturak bereiztea.

Sailkapen honetan kontuan hartu da Euskal Herriko baserrien sorrera eta bilakaera. Ezaguna denez egungo XX. mendean ezagutu dugun baserria, gaur egun desagertzeko bidean dagoena, edo etxe bihurtzeko bidean behintzat, XV. mendean finkatu zen oso epe laburrean. Lehenagoko dokumentazioa eta ikerketa arkeologikoak oso urriak badira ere argi erakusten dute mende horretan sortu zela autarkikoa izango zen baserria. Eraikuntza bakarra eta jarduera guztiak bere baitan biltzen dituen. Honen aurrean etxe eta etxe multzotan banatzen bide zen geroago baserriak bilduko zituen biltegi, ukuilu, bizitoki eta lantokiak.

Hasierako etxeak egurrezkoak baziren ere geroago aldaketa bi egon ziren, harrizko hormak eta zeramikazko teilak egindako teilatuak. Lehenengo etxeek *Ormaetxe* toponimoa eman zuten eta bigarrenek *Tellagorri*, adibide argi bi emateko.

XVI. mendean hazkunde ekonomikoa eta demografikoa egon zen Euskal Herriaren baketzearen eta Ameriketako aurkikuntzaren ondorioz. Azkenik, XVII. ean artoaren lanketaren zabaltzeak azken gorakada nabarmena ekarri zuen.

Etxe izenak egungo idazkeran eman dira.

GETXOKO BILAKAERA DEMOGRAFIKOA ETA BASERRIEN KOPURUA

Getxon egon diren baserri eta etxeen kopurua ezagutzeko biderik ziurrena sutegiak aztertzea da edo dateke egindako guztiak bagenu. Zoritxarrez XVIII. mendekoak oso zehatzak badira ere aurreko mendeotakoak ez dira hain aberatsak. Hala ere, bilakaeraren berri argia ematen digute.

Sutegiak Getxon:

Urtea	Sutegi kopurua	Biztanle kopurua ⁴
1635	131	655
1685	101	505
1704	136	680
1746	139 (144 etxe)	695
1796	328 (194 etxe)	1.640
1859 ⁵	477 (286 etxe)	2.478 ⁶
1900	–	5.442
1950	–	20.396
1999	–	83.459

Sutegiak aztertzen baditugu argi ikusten da 1635-1746 bitartean aldaketa gutxi dagoela Getxon, eta ordaindu beharreko sutegi kopura ea berbera izateak etxe gutxi eraiki zirela pentsarazten digu. Handik aurrera, ostera, gauzak aldatu ziren eta etxeen kopurua etengabe hasi zen. XVIII. mendearen bigarren erdialdean, 50 urtetan 50 etxe gehiago agertu ziren, hots urtero bana. Baina hazkunde hau ez zen gelditu eta hori izan zen geroago jarraitutako bidea hurrengo 63 urteotan 92 etxe gehiago eraiki ziren.

Eraikuntza hauek ez ziren herriaren leku guztietan banatu. Sutegietan hiru etxe ageri zaizkigu Areeta auzoan 1745ean eta hiru 1796an, auzo hau XIX. mendearen bigarren zatian sortu baitzen udalak herri lurrak saldu behar izan zituenean. 1882an 212 pertsona bizi ziren bertan.

Elexalde inguruan ere ez zen gorakada nabarmenik egon horko bizimodu lurrari atxiki egonik ez zegoelako baserri berriak eraikitzeko lekurik, XVI. mendean bete baitzen inguru hori.

XVIII eta XIX mendearen hasierako hazkundera gaur egun Algorta izenez ezagutzen dugun auzoan gauzatu zen, *Alango*, *Portu Zaharra* eta *Gazteluzar* inguruetan. Aldaketa nabaria izan zen etxeen tipologia eraikitako etxe gehienak ez baitziren baserriak. Etxe berriak ez ziren nekazaritzarako eraiki, nahiz eta abereren bat edo beste eta gehienek baratza izan.

BASERRI ETA ETXEEN IZENAK GETXON MENDEKA SAILKATUTA

Baserri izenak sailkatzeko bi multzo desberdin egin ditugu, batetik jatorriz toponimoak ez zirenak, gehienetan oinarrian pertsona izan dutenak, eta bestetik gainontzeko toponimo guztiak:

1. Jatorriz toponimoak ez diren etxe izenak

1.1. Esanahi ilunekoak

Azalpen argirik gabekoak, nahiz eta batzuk argiagoak diren. Geroago ikusiko denez atal honetakoak batik bat zaharrenak dira.

⁴ Batz besterik ez bada biztanle sutegi bakoitzeko jotzen da. 1859etik aurrerako datuak erroldatik datuak aterata.

⁵ *Nomeclator* delakoa egitean egindako zerrendetako datuok.

⁶ 1857ko datua.

1.2. Jabearen deizioa duten etxeak

Ez dugu *izen* edo *deitura* hitzak erabili nahi izan ezizenak eta bestelakoak ere ager daitezkeelako. Hori dela eta Patxi Salaberrik erabilitako *deizioa* hitza nahiago izan dugu.

1.2.1. Deizioa huts hutsean daukatenak

1.2.2. Deizioa eta atzizkia daukatenak

Getxon, inguruko herrietan bezala *-ena* atzizkia agertzen da Izen, lanbide, ezizen eta deiturei atxikia etxe izenak sortzeko. Beste lekuetan ez bezala atzizki honek ez du aldaketarik aurreko hitza kontsonantez edo bokalez amaituta ageri arren: *Andratiena*, *Pitarrena*...

2. Oinarrian toponimo bat dutenak

2.1. Etxearen izaerari dagozkion izenak

Hurrengo puntuan ez bezala izen hauek eta etxeen sorrera hertsirik daude lotuta etxeak eraiki eta gero, edo kasu batzuetan batera sortu baitziren, ez baitago etxerik gabe ulertzerik.

2.1.1. Etxearen izaera

2.1.2. Etxearen kokapena

2.1.3. Etxearen deskribapena

2.1.4. Etxe izenez osatutako izen berriak

Sarritan, gehienetan, jadanik zutik zegoen lurren eremuan eraikitako etxe berriak aurrekoaren izena hartzen zuen bereizteko posposizio batez hornituta. Honek askotan jatorrizko etxeari zerbait gehitu beharra eskatzen zuen, baina ez beti. Sarri inguruan etxe berriak sortu zirenean Sarria izen soila desagertu zen, Sarria zaharra *Sarrierdikoa*⁷ bihurtu zelaririk, *Sarriaurrekoa* eta *Sarriosteikoa* etxeetatik bereizteko edo. *Diliz* etxearen kasuan, ostera, ez zen horrelakorik gertatu eta etxe berriak *Dilizandia* etxe hartzen ez zen zaharrena aldatu.

XVIII mendeko dokumentazioan arrunta da posposizio hau itzulita agertzea. Kasu batzuetan etxea desagertzeak benetako euskal izena betiko galtzea ekarri digu, nahiz eta zein izan zitekeen susmatu erdaratutako batzuk eredu hartuta. Esate baterako *Muxikaurrekoa* etxea *Mujica la delantera* itzulita ageri zaigu behin baino gehiagotan.

2.2. Bestelako toponimoak

Atal honetan etxearen izaerari ez dagozkion toponimoak bildu ditugu. Pentsatzekoa da atal honetan bildutako toponimoak etxea baino zaharragoak direla eta eraikuntzak bertatik hartu zuela izena.

2.2.1. Hitz arruntak

2.2.2. Fitonimoak

2.2.3. Toponimo konposatuak

2.2.4. Jabeak ezarritako neotonimoa

Bereziki XX. Mendean ageri arren banakaren bat lehenago ere ageri da. Horrelakoak lehenago ikusitako era guztie-

⁷ *Abadena* izena ere hartu zuen geroago.

takoak izan daitezke, baina atal bereizi batean eman ditugu ez direlako herriak sortutako izenak, jabeak berak jarritakoak baizik.

A) XV. mendean ageri diren baserri izenak

Toponimia ikerketan erabilitako dokumentazio gehiena XVII. mendean hasi zenez lehenago aipua oso urriak dira:

Getxo, Andra Maria (Monasterio de Santa Maria), Larrazabal, Uria.

B) XVI. mendeko baserriak

Etxeak izendatzeko erabilitako sistemak aztertzeo eraikitze dataz ezagutu behar dira. Zoritxarrez Getxoko baserrien datuak nahiko berriak direnez, XVII. mendea baino zaharragoak oso urriak baitira, zeharreko bideak erabili behar ditugu zeintzuk baserri diren XVI. mendekoak.

Muga sendoena XVI. mendearen erdialdean kokatu ahal dugu. Ezaguna denez 1545an hasi zen Tretoko kontzilioan, besteak beste, Eliza Katolikoaren errolda sortzearen erabakia hartu zuten eta orduan finkatu zen, ñabarduraren bat edo beste alde batera utzita, gaur egun indarrean dagoen deitura izendatze sistema. Horri esker, eta Euskal Herrian dagoen deitura eta baserri izen arteko lotura dela medio jakin dezakegu zeintzuk baserri zeuden eraikita izendatze sistema hori indarrean ezartzean.

Ordura arte izenaz gain erabiltzen zen deizioa aldatzen zen, eta funtsean ponte izenaz gain aitaren izen edo patronimikoa, ez beti, eta azkenik bizitokia. Handik aurrera bizitokia deitura bihurtu zen eta finkatu zen betiko⁸. Horren ondorioz, XVI. mendearen erdia baino lehenago eraikitako baserriek deiturak eman zituzten, bizitoki ziren neurrian, baina ez handik aurrerakoek.

Jakiteko zehatz-mehatz zeintzuk baserrik eman duten deitura Getxon XVIII. mendeko Sutegietan herrian bertan ageri diren deiturak eta herriko baserri izenak erkatu ditugu, ez bakarrik aipatutako sutegietan ageri diren etxe izenekin, ditugun guztiakin baizik. Gogoan izan behar dugu ordurako baserri izen batzuk aldatuta zein desagertuta egon zitezkeela. Deigarria da herriaren izenak eta bera auzo ezagunenak deitura eman ez izana, edo hobeki esan bertan eman ez izana Getxo deitura Bermeon ageri baita, agian bertara joandako getxoxtarrek eramanda, eta Algorta Mendexan bertako baserri izena da eta. Deitura ere baden *Arrizurieta* ez dugu zerrenda honetan sartu izen hori duen Getxoko baserria 1745koa baita, eta deitura hori izatez Ispaster herrikoa.

B-1) Getxon deitura eman duten etxe izenak

Alango, Algorta (nahiz eta bertako auzoa izan ez du herrian deiturarik eman, bai ostera Mendexako Algorta baserriak), Amezti, Aretxeta, Arnabar, Arrigunaga, Arrizurieta (1745an ageri da eta etxea bada ere kanpotik etorritako deitura dela dirudi), Arteaga (1505ean dokumentatua), Arzubiaga, Basalbo, Basarte, Diliz, Dilizibarra, Etxeandia, Elorriaga, Gaztañaga, Gobela, Goikoetxea, Goñia, Getxo (Bermeon), Ibarra, Jauregi (1796an ageri da

⁸ “*Betiko*” esan arren aldaketa bat edo beste egon zen, ari nagusia aldatu ez bazen ere.

etxea), Kortina, Larrauri, Larrazabal, Lezeta, Maidagan, Murua, Muxika, Ormaetxea, Ormatza, Pinaga, (E)Retureta, Salsidua, Sarria, Tellaetxe, Torretxe, Tosua (1704ean bakarrik, aurrerago ez da ageri), Uria, Uribarri, Urretxaga, Villamonte (Kanpotik etorritako deitura dela dirudi), Villaverde, Zubiaga eta Zubilleta.

B-2) XVI. mendeko baserri izenak izaeraren arabera sailkatuta

1. Jatorriz toponimoak ez diren etxe izenak:
 - 1.1. Jatorri iluneko izenak
Getxo, Gobela, Goñia⁹, Kortina¹⁰, Tosua¹¹.
 - 1.2. Jatorri ezaguneko izenak.
Alango¹², Billamonte¹³, Billaberde¹⁴, Diliz¹⁵.
2. Oinarrian toponimo bat dutenak.
 - 2.1. Etxearen izaerari dagozkion izenak:
 - 2.1.1. Etxearen izaera
Jauregi, Torretxe, Uria¹⁶.
 - 2.1.2. Etxearen kokapena
Goikoetxea, Larrauri.
 - 2.1.3. Etxearen deskribapena
Etxeandia, Murua, Ormaetxea, Ormatza, Tellaetxe, Uribarri.
 - 2.1.4. Etxe izenaz osatutako etxe izen berriak
Dilizandi.
 - 2.2. Bestelako toponimoak
 - 2.2.1. Hitz arruntak
Ibarra, Sarria.
 - 2.2.2. Fitonimoak
Amezti, Aretxeta, Arteaga, Elorriaga, Gastañaga, Pinaga, Salsidua, Sarria, Urretxaga.
 - 2.2.3. Toponimo konposatuak
Algorta, Arnabar, Arrigunaga, Arzubiaga, Basalbo, Larrazabal, Lezeta, Maidagan, Muxika, (E)Retureta, Salsidua, Zubiaga, Zubilleta.

⁹ Euskal Herrian bada beste Goñi, Nafarroako ibarra. Deigarria da hala ere hemen artikuluz lagunduta agertzea. J. C. Barojak Nafarroako toponimoa eta Gueñes lotu zituen jatorria oronimo bat egon zitekeela argudiatuz, baina pentsa genezake Enkartzioetako izenean *-itz* atzizkiaren aldaera den *-es* daukagula eta orduan egun ezezaguna den izen bat izan genezake, **Goñes* > *Gueñes* aldaketa erraz azal baitaiteke erdal fonetika historikoa dela medio. Hala ere, Getxoko izena artikuluz hornituta agertzeak zailtzen du azalpen hau.

¹⁰ Deigarria da leinu honek armarrian euskarazko leloa izatea: *Daigun gitxika, daigun gitxika*.

¹¹ 1704ko sutegetan baino ez da ageri deitura moduan. Badirudi geroago Euskal Herrian behintzat desagertu egin zela.

¹² *Alanicus* pertsona izenarekin lotu izan da izen hau.

¹³ Gordexola inguruan agerienez pentsa daiteke kanpotik etorritako deitura dela.

¹⁴ Errenazimendu garaian modan egondako izenetako bat, Mondragoe edo Salbaterra bezala.

¹⁵ Itxura guztiaren arabera *-i(t)z* jabetza atzizkiak osatutako toponimoa Lemoiz eta Muskiz bezala. Oinarrian *Tilius* izena dagoke.

¹⁶ Gaur egun oraingoz da muin batean bakarrik dagoen etxea. Beraz, *uri* hitza bere esanahi zaharrenean dago erabilia, "etxe" hain justu. Etxe hau ageri zaigu Getxo izenarekin batera *Bienandanzas e Fortunas* liburuan.

C) XVII. mendean ageri diren etxeak

Getxon XVII. mendean dokumentatutako etxe guztiak, eta lehenengo aipuaren datuak.

Alango (1609), Algorta (1651), Altamira¹⁷ (1617), Amezti (1610), Amez-tietxebarria¹⁸ (1651), Arana (1629), Aretxeta (1617), Arnabar (1615), Arrigunaga (1612), Arteaga (1614), Arzubiaga (1615), Arzubigajaregi (1615), Barreretxea (1613), Bartoloena¹⁹ (1677), Basalbo (1617), Basarte²⁰ (1623), Billa-berde (Billaberdebekoa)²¹ (1614), Billaberdegoikoa (1651), Billamonte (1614), Diliz (1612), Diliz de Suso²² (1634), Elexalde (1620), Elorriaga (1610), Erretureta (1634), Errotaetxe (1613), Esesumaga (Esesumagatzekoa) (1617), Etxatxueta²³ (1612), Etxeandia (1612), Etxezarra²⁴ (1609), Gaztañaga (1622), Gobela (1610), Goikoetxea (1636), Goñi (1611), Ibar(ra)bengoa (1629), Ibarra (1609), Ibarjaregi (Ibarratzekoa)²⁵ (1690), Ibarrekoerrotta (1610), Ibatao (1621), Iturriagaena²⁶ (1609), Jardingana (1612), Jauregi (XVII. mendeko bi, data zehatzik gabe, hurrengo 1762koa), Kanduruerreka (1624an bi aldiz eta 1627an beste bi, egun toponimo hutsa, ez da etxea), Kortina²⁷ (1616), Uribelarra²⁸, Labea (Labeasimonena) (1621), Larrauri (1616), Larrazabal (1581, 1609), Lezeta (1614), Maidagan (1616), Mimenaga (1620), Murua (1620), Muxika (1620), Ormaetxea (1629), Ormatza²⁹ (1619), Ormatzagoikoa (1632), Milliondoeta (Billaondoeta) (1612), Pinaga (1609), Sal-sidua (1619), Saratsaga (1622), Sarria (1611), Sarriabeaskoetxea³⁰ (1635koa mende horretako aipu bakarra), Tellaetxe (1622), Torreta³¹ (1616), Torretxe (1616), Tosua (1615), Uria (1619), Uribarri³² (1611), Urretxaga (1635), Usategi (1630), Zabala (1611), Zubiaga³³ (1619), Zubiagaostaikoa (1637) eta Zubileta (1612).

C-1) XVI-XVII. tartean ageri diren etxe berriak

Deitura eman ez duten edo eta XV. mendean azaltzen direnak kenduta. Aurkitu dugun lehenengo aipuaren data ere ematen da.

¹⁷ Nahiz eta etxe izen hau Bizkaian arrunta izan ez da deitura legez sutegetan agertzen.

¹⁸ Behin baino ez da agertzen etxea hau XVI. mendean. Hurrengo aipua 1828koa da.

¹⁹ 1677an ageri da.

²⁰ 1797an Basartenekoa deitua eta 1831tik aurrera Basartena izenak ordezdua.

²¹ Geroago, 1745ean, Billaberdebekoa izen hartu zuen.

²² Behin baino ez da etxe hau ageri, Diliz baino gorago etxe bi baino ez daude, Julieta eta Dili-zandi.

²³ XVI. mendean agertu eta desagertu zen etxea, 1612, 1615 eta 1633an.

²⁴ XVI. mendean sortu eta desagertu zen etxea, 1609-1693 bitartean.

²⁵ Izen aldaketa XVIII. mendearen amaieran gauzatu zen. Lehenegoa 1780an ageri da azkeneko al-diz eta 1784an agertzen da bestea.

²⁶ 1745etik aurrera Iturrigana bihurtu zen.

²⁷ Deigarria da deitua honek duen leloa: *Daigun gixika, daigun gixika*.

²⁸ Behin baino ez da ageri XVI. mendean 1617an.

²⁹ 1831. urte arte Ormatza huts hutsean, aurrerantzean Ormatzabekoa.

³⁰ 1768. urtean aldatu zen izena eta Sarriabeakoetxea bihurtu.

³¹ XVI. mendean La Torre eran dokumentatua.

³² Lehenengo aipuan, Uribarri sarra (bakarra), 1754an Uribarri beco, 1778an Uribarri de abajo.

³³ 1764. urtetik aurrera Zubiagaurrekoa.

Algorta (1651), Altamira³⁴ (1617), Ameztietxebarria (1651)³⁵, Arana (1629), Arzubigajaregi (1615), Barrenetxea (1613), Bartoloena³⁶ (1677), Billaberde (Billaberdebekoa)³⁷ (1614), Billaberdegoikoa (1651), Billamonte (1614), Diliz de Suso³⁸ (1634), Elexalde (1620), Erretureta (1634), Errotaetxe (1613), Esesumaga³⁹ (1617), Etxatxueta⁴⁰ (1612), Etxeandia (1612), Etxezarra⁴¹ (1609), Ibar(ra)bengoa (1629), Ibarjaregi (Ibarratzekoa)⁴² (1690), Ibarrekoeerrota (1610), Ibatao (1621), Iturriagaena (1609), Jardingana (1612), Jauregi⁴³, Kanduruerreka⁴⁴, Labea (Labeasimonena) (1621), Mimenaga (1620), Ormatzagoikoa (1632), Milliondoeta (Billaondoeta) (1612), Saratsaga (1622), Sarriabeaskoetxea⁴⁵, Torreta⁴⁶ (1616), Uribarri⁴⁷ (1611), Usategi (1630), Zabala (1611) eta Zubiagaostakoa (1637).

C-2) XVI-XVII. tartean ageri diren etxe berriak

Baserri izenak sailkatuta:

1. Jatorriz toponimoak ez diren etxe izenak:

1.1. Esanahi ilunekoak

1.2. Deituradun etxeak

1.2.1. Deizioa huts hutsean daukatenak

Billamonte (1614).

1.2.2. Deitura eta atzizkia daukatenak

Iturriagaena⁴⁸ (1609), Labea (Labeasimonena) (1621), Bartoloena (1677).

2. Oinarrian toponimo bat dutenak.

2.1. Etxearen izaerari dagozkion izenak:

2.1.1. Etxearen izaera

Errotaetxe (1613), Ibarrekoeerrota (1610), Jauregi, Torreta (1616).

2.1.2. Etxearen kokapena

Barrenetxea (1613).

2.1.3. Etxearen deskribapena

Etxatxueta (1612), Etxeandia (1612), Etxezarra (1609), Uribarri (1611).

³⁴ Nahiz eta etxe izen hau Bizkaian arrunta izan ez da deitura legez sutegietan agertzen.

³⁵ Behin baino ez da agertzen etxea hau XVI. mendean. Hurrengo aipua 1828koa da.

³⁶ 1677an ageri da.

³⁷ Geroago, 1745ean, Billaberdebekoa izena hartu zuen.

³⁸ Behin baino ez da etxe hau ageri, Diliz baino gorago etxe bi baino ez daude, Julieta eta Dili-zandi.

³⁹ Geroago Esesumagatzekoa bihurtu zen.

⁴⁰ XVI. mendean agertu eta desagertu zen etxea, 1612, 1615 eta 1633an.

⁴¹ XVI. mendean sortu eta desagertu zen etxea, 1609-1693 bitartean.

⁴² Izen aldaketa XVIII. mendearen amaieran gauzatu zen. Lehenegoa 1780an ageri da azkeneko aldiz eta 1784an agertzen da bestea.

⁴³ XVII. mendean, eta data zehatzik gabe, bi aldiz aipatzen da. Hirugarren aipua 1762koa da.

⁴⁴ 1624an bi aldiz eta 1627an beste bi, egun toponimo hutsa, ez da etxea.

⁴⁵ 1635koa mende horretako aipu bakarra. 1768. urtean aldatu zen izena eta Sarriabeaskoetxea bihurtu.

⁴⁶ XVI. mendean La Torre eran dokumentatua.

⁴⁷ Lehenengo aipuan, Uribarri sarra (bakarra), 1754an Uribarri beco, 1778an Uribarri de abajo.

⁴⁸ 1745etik aurrera Iturrigana bihurtu zen.

2.1.4. Etxe izenez osatutako izen berriak
Ameztiexebarria (1651), Arzubigajuregi (1615), Billaberdegoikoa (1651), Diliz de Suso (1634), Ibar(ra)bengoa (1629), Ibarjaregi edo Ibarratzekoa (1690), Ormatzagoikoa (1632), Sarriabeaskoetxea, Zubiagaostaikoa (1637).

2.2. Bestelako toponimoak

2.2.1. Hitz arruntak

Arana (1629), Zabala (1611).

2.2.2. Fitonimoak

Mimenaga (1620), Saratsaga (1622).

2.2.3. Toponimo konposatuak

Algorta⁴⁹ (1651), Elexalde (1620), Erretureta⁵⁰ (1634), Esesumaga (1617), Ibatzo (1621), Jardingana (1612), Kanduruerreka, Milliondoeta (Billaondoeta) (1612), Usategi (1630).

2.2.4. Jabeak ezarritako neotonimoak

Altamira (1617), Billaberde (Billaberdebekoa) (1614).

D) XVIII. mendean eraikitako etxeak

Zerrenda honetan XVIII. mendean ageri diren etxe berriak bildu dira jatorrizko idazkeran. Dena dela. Ohar bi egin behar dira zerrenda honen gainena. Izen batzuk behin besterik ez agertzeak etxe izen batzuk aldatu direla adierazten du, kasu batean deigarria da, noiz eta lehenengo aipuan izen biak agertzen baitira. Beste izen berriak aurreko izen baten ondorio dira, etxe baten lurretan eraikuntza berria eraikitzean aurreko izenari zerbait gehitu zitzaion: *-berri*, *-goiko*, *-beko*... Horrelakoetan jatorrizko etxe izenari ere gehitu zitzaion zerbait, *-za(ha)r*, *-goiko*..., nahiz eta beti ez.

Abadesanena⁵¹ (1769), Abadesanenabarria (la nueva) (1792), Adamena⁵² (1745), Adamenabarria (la nueva) (1796), Aketxena⁵³ (1791), Alangoballe⁵⁴ (1796), Alangobekoa⁵⁵ (1745), Alangoerdikoa⁵⁶ (1745), Aldai (1756), Amoroena (1745), Andratiena (1745), Angalantena (1745), Anjelena (1760), Uribelarra⁵⁷ (1773), Ansoena (1745), Ansoena ostekoa (1745), Ansoena aurrekoa (1763), Antoena (1775), Arkotxa (1775), Arrizurieta (1745), Arteaga ostaiakoa (1759), Arteaguena (1745), Arzubiaga de arriba (1780), Arzubiena⁵⁸ (1769), Asentzioena⁵⁹ (1785), Atxcanea Askanea (1733), Askorrena (1767), Askorriena⁶⁰ (1745), Aspe (1745), Aspe menor (1795), Atxea (1745), Aurre-

⁴⁹ Izen honen etimologia iluna bada ere badirudi *harri* eta *gorta* hitzekin lotu behar dugula. Mendexako etxeaz gain toponimo arrunta da Bizkaian.

⁵⁰ Izen honen osagaiak *erretura* "luberrri" hitza eta arrunta den *-eta* atzizkia dira.

⁵¹ Izena *Abadesa* eta *-ena* atzizkiak osatuta dago. Gure irudiko, lehenengo aipuetan Abadezanena *-z* agertzearen arrazoia zuzenketa oker baten ondorioa dateke, etxea sortu zen garaian jadanik galdu-ta baitzegoen ahoskera hori inguruotan.

⁵² Izenaren osagaiak *Adam* edo Adame euskal pertsona izena eta *-ena* atzizkia dira.

⁵³ Aketza izenaren hipokoristikoa den *Aketxe* eta *-ena* atzizkiak osatuta.

⁵⁴ Izenaren osagaiak *Alango* etxe izena eta *Valle* deitura dira.

⁵⁵ Birritan besterik ez da agertzen. Kokapena ezagututa litekeena da hau eta Alangoballe etxe bera izatea.

⁵⁶ Behin besterik ez da ageri, litekeena da etxe hau Alango izatea.

⁵⁷ Uribelarra-Antontxuena ere deitua.

⁵⁸ 1843an izena aldatu eta *Padrene* bihurtu zen.

⁵⁹ Behin besterik ez da ageri.

⁶⁰ 1745an Ascorri izena ageri arren 1758tik aurrera Askorriena.

koetxea (1771), Basartenabarri (la nueva)⁶¹ (1795), Bastiantxuena (1745), Bastienena (1762), Beaskoetxea (1759), Benturillaena (1791), Binategi (1796), Buenos Aires (1780), Dendariena (1757), Dendariena Alangogoitia (1763), Dilizandi (1745), Domingoena (1745), Domingotxuena (1786), Entelladoreena (1745), Entelladorena la menor (Entelladorenabarri) (1770), Herederuena (1757), Ramosena (1745), Ramosena la nueva (1783), Eresumaga la Maior (1796), Eresumaga aurrekoa (1745), Etxeandia (bigarren Etxeandia, Areta auzokoa) (1745), Etxebarria (1745), Etxeerre (1792), Etxebarria Filipena (1794). urtetik aurrera (E)rementariena hasi zen erabiltzen (1779), Fe(lipe)txuena (1796), Felizena (1786), Fikena (1781), Floresena (1761), Floresenabarria (la nueva) (1796), Ramosena de Freskatxu (behin) (1796), Gabrielena (1759), Galanena (1737), Garaena (1745), Garaienabarria (la nueva) (1796), Gastañagaurrekoa (1765), Getxo⁶² (1745), Casa del Aguao⁶³ (1796), Gobelatxu (1745), Gobelaaurrekoetxea⁶⁴ (1745), Gobelena (1764), Casa Nueva de Goikoetxe (1760), Goñiabeakoa (1745), Goñigoikoa (1760), Goñitxu (1760), Gorostiondo (1760), Gorostiondobarria (la nueva) (1796), Ibarra ostekoa (1745), Induriena⁶⁵ (1793), Insaurragagoikoa⁶⁶ (1758), Iturbengoa⁶⁷ (1768), Jakobeena (1745), Julieta (1759), Caba (1745), Txiskiena (1761), Kasuena (1745), Kortinaena (1792), Kukullagabekoa (de abajo) (1768), Linduena (1760), Lopetxena⁶⁸ (1774), Makotena (1764), Maloena (1758), Malzapatariena (1781), Mantekeruena (1764), Mantxiena (1745), Manuelena (1775), Mariandresena (1793), Mariena (1766), Martiena (1781), Martinikoena (1745), Martintoena (1760), Matxikortina (1742), Mentxakena (1745), Mesapedroena (1762), Miragaia (1745), Larrazabalgoikoa (1745), Larrazabalaurrekoa (1745), Mugaburu (1745), Mukurena⁶⁹ (1796), Muxikaostekoa (1745), Muxikaurrekoa⁷⁰ (1774), Nañalangoena⁷¹ (1796), Hormaetxe (1796), Zubiagaosabena (1762), Otxoena (1745), Palazzo (1745), Peritzene (1760), Uribelartxu (1745), Perulopetxena (1765), Perutxoena (1745), Pinagabekoa (1745), Pinagaerdikoa (1745), Pinagagoikoa (1745), Pitarrena (1745), Prudentzioena (1761), Sanjuanena⁷² (1760), Santielealdena (1757), Santiena (1745), Santikoena (1745), Alangosantukuena⁷³ (1767), Santurziena⁷⁴ (1745), Sarrantxena (1796), Sarriadendariena (1765), Sarriena (1745), Sarria goikoa (1745), Sarriapepelluena (1767), Sertutxena (1760), Soldaduena (1781), Tatuena (1745), Teresena (1745), Torrena (1757), Tosutxua (1745),

⁶¹ Behin besterik ez da ageri.

⁶² Behin ageri da etxe izen moduan, agian jauregi bat zen.

⁶³ 1876an Aguao Gobela izenaz ageri da.

⁶⁴ Behin besterik ez da ageri.

⁶⁵ Behin besterik ez da ageri.

⁶⁶ Behin besterik ez da ageri.

⁶⁷ Behin besterik ez da ageri.

⁶⁸ Lehenengo aipuan Colegialena: -...contra la mittad de la Casa y Caseria de Colegialena alias Lopechena nottoria en Guecho... (1774-09-28).

⁶⁹ Etxe hau behin besterik ez da ageri, Bizkaiko Sutegietan bestalde, pentsatzekoa da geroago izenaz aldatu zela.

⁷⁰ Beste izen asko bezala erdi itzulita ageri da "Mujica la de adelante". Geroago **Muxika Aurrekoa** era agertu da. Egun etxea ez badago ere bere izenak Muxikaurrekoa kale izenean dirau.

⁷¹ 1796-1847 bitartean Nanealango deitu zuten.

⁷² 1760an Axpe San Juanena izenez ageri da, 1779tik aurrera San Juanena huts hutsean.

⁷³ 1799tik aurrera Santuku huts hutsean.

⁷⁴ Behin besterik ez da ageri.

Tranpeena (1745), Txomingorriena⁷⁵ (1745), Uribarrigoikoa (1745), Ramose-
na la maior (1783), Zientoetxe (1766), Zubiagaetxebarria (1725), Zubilleta
azekoa (1745), Zubilletaurrekoa (1745) eta Zugasti (1772).

D-1) XVIII. mendeko etxe berriak izaeraren arabera antolatuta.

1. Jatorriz toponimoak ez diren etxe izenak:

1.1. Esanahi ilunekoak

Getxo⁷⁶ (1745).

1.2. Jabearen deizioa duten etxeak

1.2.1. Deizioa huts hutsean daukatenak

Alango de balle (1796).

1.2.2. Deizioa eta atzikia daukatenak

1.2.2.1. Ponte izena dutenak

Adamena (1745), Aketxena (1791), Anjelena (1760), Antsoena (1745), Asentsioena (1785), Bastiantxuena (1745), Bastienena (1762), Domingoena (1745), Domingotxuena (1786), Erramosena (1745), Felipe-
na / Errementariena (1779), Felipetxuena (1796), Felizena (1786), Gabrielena (1759), Lopetxena⁷⁷ (1774), Jakobeena (1745), Julieta (1759), Mantxie-
na (1745), Manuelena (1775), Mariandresena (1793), Mariena (1766), Martiena (1781), Martini-
koena (1745), Martintoena (1760), Matxikortina⁷⁸ (1742), Otxoena (1745), Peritzene (1760), Perulo-
petxena (1765), Perutxoena (1745), Prudentzioena (1761), Santielexaldena (1757), Santiena (1745), Te-
resena (1745), Txomingorriena (1745), Ramosena de Frescachu (behin) (1796).

1.2.2.2. Ezizena dutenak⁷⁹

Andratiena (1745), Amorotoena⁸⁰ (1745), Angalan-
tena (1745), Antoena (1775), Arzubiena⁸¹ / Padrene (1769), Fikena (1781), Galanena (1737), Garaiena (1745), Makotena (1764), Maloena (1758), Indurie-
na (1793), Txiskiena (1761), Kasuena (1745), Lin-
duena (1760), Mesapedroena (1762), Mukurena (1796), Nañalangoena (1796), Zubiagaosabena (1762), Pitarrena (1745), Sanjuanena (1760), Santi-
koena (1745), Santurtziena (1745), Sarrantxena (1796), Sarriapepelluena (1767), Sertutxena (1760), Tatuena (1745), Tranpeena (1745).

⁷⁵ 1870tik aurrera Chomingorrena-Echebarri.

⁷⁶ 1745an baino ez da ageri izen hau etxe bat izendatzeko.

⁷⁷ Lehenengo aipuan Colegialena: "...contra la mittad de la Casa y Caseria de Colegialena alias Lopechena nottoria en Guecho..." (1774-09-28).

⁷⁸ *Bastian* izeneran hipokoristikoa den *Matxi* eta *Kortina* deituraz osatuta.

⁷⁹ Azalpen argirik gabekoak ere sartu ditugu.

⁸⁰ Amoroto herri izena eta deitura da. *Fikaena* kasuan bezala badirudi jatorria ezizen erabili izan zela.

⁸¹ *Arzubiaga*, ahoz *Arzubi*, Getxoko baserria da, hemen ezizen moduan erabilia.

1.2.2.3. Deitura dutenak

Arteagena (1745), Askorrena (1767), Floresena (1761), Gobelena (1764), Kortinaena (1792), Mენტxakena (1745), Sarriena (1745), Torrena (1757).

1.2.2.4. Lanbidea dutenak

Abadesanena (1769), Askorriena (1745), Dendariena (1757), Benturillaena (1791), Entelladoreena (1745), Errementariena / Filipena (1779), Erederuena (1757), Malzapatariena (1781), Mantekeruena (1764), Sarriadendariena (1765), Soldaduena (1781).

2. Oinarrian toponimo bat dutenak.

2.1. Etxearen izaerari dagozkion izenak:

2.1.1. Etxearen izaera

Palazio (1745), Binategi (1796).

2.1.2. Etxearen kokapena

Aurrekoetxea (1771), Beaskoetxea (1759), Iturbengoa (1768).

2.1.3. Etxearen deskribapena

Casa del Aguao (1796), Etxeandía⁸² (1745), Etxebarría (1745), Etxeerre (1792), Hormaetxe (1796).

2.1.4. Etxe izenez osatutako izen berriak

Abadesanenabarria (Abadezanena la nueva) (1792), Adamenabarria (Adamena la nueva) (1796), Alangobekoa (1745), Alangoerdika (1745), Ansoenaosteka (1745), Antsoenaurrekkoa (1763), Arteagaostaikoa (1759), Arzubiagagoikoa (1780), Aspe menor (1795), Basartenabarria (Basartena la nueva) (1795), Dilizandi (1745), Dendariena Alangogoitia (1763), Entelladorenabearri edo Entelladorenena la menor (1770), Erramosenabarria (1783), Erramosenanagusia (Erromasena la maior) (1783), Esumaganagusia (1796), Esumagaurrekkoa (1745), Floresenabarria (Floresena la nueva) (1796), Garaienabarria (Garaiena la nueva) (1796), Gastañagaurrekkoa (1765), Gobelatxu (1745), Gobelaurrekkoetxea (1745), Goikoetxeetxebarri (Casa Nueva de Goikoetxe) (1760), Goñiabekoa (1745), Goñigoika (1760), Goñitxu (1760), Gorostiondobarria (1796), Ibarraosteka (1745), Intaurragoika (1758), Kukullagabekoa (1768), Larrazabalgoika (1745), Larrazabalaurrekoa (1745), Muxikaostekoa (1745), Muxikaaurrekoa (1774), Pinagabekoa (1745), Pina-gaerdikoa (1745), Pinagagoikoa (1745), Sarriagoikoa (1745), Tosutxua (1745), Uribarrigoikoa (1745), Uribelartxu (1745), Zubiagaetxebarria (1725), Zubilletatzekoa (1745), Zubilleta-aurrekoa (1745).

⁸² Izen hau duen Getxoko bigarren etxea Areeta auzoan kokatuta.

2.2. Bestelako toponimoak

2.2.1. Hitz arruntak

Atxea (1745).

2.2.2. Fitonimoak

Gorostiondo (1760), Zugasti (1772).

2.2.3. Toponimo konposatuak

Uribelarra (1773), Arkotxa (1775), Arrizurieta (1745), Askaneia (1733), Aspe (1745), Caba (1745), Miragaia (1745), Mugaburu (1745), Santuku (1767), Zientoetxe (1766).

2.2.4. Jabeak ezarritako izena

Buenos Aires (1780).

E) XIX. mendean sortutako etxeak

Agirrenagusia (1850), Agirrezuria (1883), Aiuria-Kaltzada (1873), Alangoballebarri (1870), Alontsoena (1830), Amorotoenabarri (1810), Angulo (1894), Aranbarri (1806), Arestibarri (1875), Arestiena (1853), Arrate-Faduras⁸³ (1876), Arruti (1860), Artatza⁸⁴ (1843), Arteaga barria (1821), Arteta (1863), Arteta menor⁸⁵ (1895), Askanebarri (1816), Askorrena (1845), Ategorri (1880), Atxeabarria (1816), Atxondo (*Achondo-Calzada*) (1825), Basalduena (Aipu gehienetan *Basaldua*) (1803), Basartebekoa (1810), Bekokalle (behin, *Anbekokalle* ere ageri da auzo izen moduan) (1874), Bidebitarte (1872), Bilbainena (1843), Billabeitia (1887), Bolunburu⁸⁶ (1857), Dilezena⁸⁷ (1864), Elorriaga (1896), Esperanza (1867), Etxebarritxu (1867), Etxetxikerre⁸⁸ (1857), Etxetxu (1845), Fikaenabarri (1883), Flor de Alangoetas (1857), Floresena la de arriba (behin) (1840), Foteria (1857), Frantziska-etxe (1878), Gabrielenabarri (1856), Galdoz (1871), Gobelabarri (1863), Goñibarria (1858), Goñibekoabarri (1864), Iburgana (1854), Irurakbat (1845), Palacio de Basaldua edo Palacio nuevo (1846), Juanena (1828), Calvet (1858), Kalbetena nueva (behin) (1889), Kaltzada (1809), Kaltzadatxikia⁸⁹ (1830), Kareaga (1830), Kinkena (1856), Los dos Amigos⁹⁰ (1867), Madariaga (behin) (1857), Maidaganbarri (1849), Makotenabarri (behin) (1884), Maloena-barri (1856), Manene (1881), Mantekeruenabarri (1853), Marienabarri (1859), Matxalen (1883), Mentxakabarri (1873), Calzada de Mentxaka (behin) (1852), Meñakena (1894), Mirador (1821), Olabarrieta (behin) (1805), Osabenabarri (behin) (1864), Padrenebarri (behin) (1885), Peluquero, del (behin) (1890), Perutxoenabarri (1854), Pitarrenabarri (1855), Polloena (behin) (1869), Santikoena la nueva⁹¹ (1821), Saratsagabarri⁹² (1885), Sarriolagorta (1864), Ramosena Sarria

⁸³ Behin baino ez da agertzen izen hau.

⁸⁴ Behin baino ez da agertzen izen hau Gazteluzar inguruan.

⁸⁵ Behin baino ez da agertzen izen hau.

⁸⁶ Bitxia da gaur egun euskal izena ahoz bizirik egotea, baina dokumentazioan eraldi itzulpena baino ez agertzea: *una casa denominada Arriba del Molino*.

⁸⁷ Lehenengo aipuetan *Floresena-Dilicena*, lehengo izena beste etxe baten izena da.

⁸⁸ XIX. mendean *casa pequeña* izenez ageri da, euskal izena 1946ean ageri da lehenengoz.

⁸⁹ Dokumentazioan bi eretara itzulita ageri da: *La Chiquita dela Calzada* edo *Calzada menor*.

⁹⁰ Lagun biren artean eraikitako txaleta.

⁹¹ 1881ean izena aldatu eta *Santikoenaaurrekoa* deitzen hasi zen.

⁹² Lehenengo aipuan 1885ean itzulita ageri da: Saráchaga nueva. Gainontzeko guztietan, gehienak 1942koak, ostera, euskaraz: Sarachaga-barri.

(1853), Tangora (Palacio del Señor Goya) (1873), Tatoenabari / Iturrieta⁹³ (1829), Teresena de San Miguel (1873), Torrebarria (1848), Ugartena (1854), Ramosena Uria (1852), Uriarte (behin) (1887), Uribe (1897) eta Zalduondo (1863).

XIX. mendeko etxe izenak sailkatuta:

1. Jatorriz toponimoak ez diren etxe izenak:

1.1. Esanahi ilunekoak

1.2. Jabearen deizioa duten etxeak

1.2.1. Deizioa huts hutsean daukatenak

Izen guztiak dira jabeen deiturak *Matxalen* pertsona izan ezik. Matxalen⁹⁴ (1883), Arruti (1860), Sarriolagorta (1864), Angulo (1894), Aranbarri (1806), Artatza (1843), Arteta (1863), Atxondo (1825), Billabeitia (1887), Elorriaga (1896), Galdoz (1871), Calvet (1858), Kareaga (1830), Madariaga (1857), Olabarieta (1805), Uriarte (1887), Uribe (1897), Zalduondo (1863).

1.2.2. Deizioa eta atzizkia daukatenak

1.2.2.1. Jabearen deitura duten etxeak

Hemen biltzen dira deitura diren izenetan. Hala ere, gerta daiteke kasuren batean ezizena izatea ohikoa baita Euskal herrian kanpokoan ezizena jatorriko herria izatea, Getxon bertan XVIII. mendeko *Santurtzi* baserri izenean ikus daitekeen bezala. Ez dagonez jatorri zehatza ezagutzeko erarik deituratzat jo ditugu ageri zaizkigun herri edo etxe izenak. Arestiena (1853), Askorrena (1845), Basalduena (1803), Dilezena (1864), Meñakena (1894), Ugartena (1854).

1.2.2.2. Jabearen ezizena duten etxeak

Bilbainena (1843), Kinkena (1856), Manene (1881), Polloena (1869).

1.2.2.3. Jabearen deitura duten etxeak

Alontsoena (1830), Juanena (1828), Teresena de San Miguel (1873), Ramosena Uria (1852).

2. Oinarrian toponimo bat dutenak.

2.1. Etxearen deskribapena islatzen dutenak:

2.1.1. Etxearen izaera

Foteria (1857).

2.1.2. Etxearen kokapena

Bekokalle (1874).

2.1.3. Etxearen deskribapena

Etxebarritxu (1867), Etxetxikerre (1857), Etxetxu (1845)

⁹³ Lehenengo aipuetan erdaraz: tatoena la nueva. 1863an agertzen da lehenengo aldiz euskaraz eta urte horretatik aurrera Iturrieta izena ere hartu zuen.

⁹⁴ XIX. mendean izena huts-hutsean duen etxe bakarra. Deigarria da 1883 *Madalen* izenaren hipokoristikoa den hau jadanik agertzea.

2.1.4. Etxe izenez osatutako izen berriak

Ajuria-Kaltzada (1873), Arrate-Faduras (1876), Arteta menor (1895), Calzada de Mentxaka (1852), Ramosena Sarria (1853), Agirrenagusia (1850), Alangoballebarri (1870), Amorotoenabbarri (1810), Arestibarri (1875), Arteaga barria (1821), Axkanabarri (1816), Atxeabarria (1816), Basartebekoa (1810), Fikaenabarri (1883), Floresena la de arriba (1840), Gabrielenabarri (1856), Gobelabarri (1863), Goñibarria (1858), Goñibekoabarri (1864), Kalbetena nueva (1889), Kaltzadatxikia (1830), Maidaganbarri (1849), Makotenabarri (behin) (1884), Maloenabarri (1856), Mantekeruenabarri (1853), Marienabarri (1859), Mentxakabarri (1873), Osabenabarri (1864), Padrenebarri (1885), Perutxoenabarri (1854), Pitarrenabarri (1855), Santikoena la nueva (1821), Saratsagabarri (1885), Tatoenabarri / Iturrieta (1829), Torrebarria (1848).

2.2. Bestelako toponimoak

2.2.1. Hitz arruntak

Kaltzada (1809).

2.2.2. Fitonimoak

2.2.3. Toponimo konposatuak

Bolunburu (1857), Ibagana (1854).

2.2.4. Jabeak ezarritako neotonimoa

